




BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEAREN 2012KO JARDUEREN TXOSTENA



2012ko jardueren txostena

- 3 GIZA ESKUBIDEAK
- 24 BAKE PROZESUA HEMEN
- 29 BAKE PROZESUAK MUNDUAN
- 39 OROIMEN HISTORIKOA
- 47 BESTELAKO EKINTZAK

- Erakusketak
- Hitzaldiak
- Oroimen egunak
- Kanpo jarduerak
- Biktimei aitortza
- Proiekzioak
- Argitalpenak
- Topaketak, bilerak eta tailerrak
- Prestakuntza, sentsibilizazioa eta balioetan oinarritutako hezkuntza
- Elkarteei dirulaguntzak



GIZA ESKUBIDEAK

Sentsibilizazio eta
kontzientziazioa

GIZA ESKUBIDEEN X. ZINEMALDIA



GIZA ESKUBIDEEN X. ZINEMALDIA

2012ko apirilak 20tik 27ra

Donostiako Giza Eskubideen X. Zinemaldia

Irudiaren eta eztabaidaren bidez, gizadiaren erronka nagusien ikuspegi kritikoa, anitza eta konprometitua eskaintzen du, eta balioak zabaltzen ditu.

20 film luze, 21 film labur, 8 erakusketaz gain beste hainbat ekintza ezberdinek (musika, dantza, tailerrak, erakusketak, bisita gidatuak) ere Zinemaldiaren programazioa osatu zuten. Guztira 25.591 ikuslek parte hartu zuten.

Itsuak diren pertsonen eskubideak, Euskal Herria eta erabakitze eskubidea, Sahara, errepresio frankismoan hizkuntza gutxituak eta identitatea bezalako gaiak aztertu ziren film edota solasaldietan. Edizio hau Gernikaren bonbardaketaren 75. urteurrenarekin bat egin zuen horren inguruan eskainitako hainbat lanen eta beste jardueren bidez.

4 sari banatu ziren: Ikusleen Film Luzea Onenaren Saria (Give up tomorrow, Michael Collins), Gazteen Film Labur onenari (Los monstruos no existen, Paul Urkijo), Amnesty International Saria (Vol Special, Fernand Melgar) eta Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria (Iciar Bollain) .

10 URTEKO HISTORIA

Giza Eskubideen Zinemaldia

2012ko iraila



Giza Eskubideen XI. Zinemaldiaren kartela

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren 10 urteak jasotzen dituen argitalpena.

Hamar urte hauetan proiektatu diren pelikulak, sariak, eztabaidak, gonbidatuak (zuzendariak, aktoreak, giza eskubideetan adituak...), erakusketak, musika eta abar biltzen ditu era grafiko batean.

Antolatzaileak: Donostiako Udala, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bitartez, eta Donostia Kultura



Zinemaldiaren aurkezpena. Josemi Beltrán, Juan Karlos Izagirre eta Nerea Txapartegi



Gazte epaimahaia 2012



Ikasleentzako goizeko saioak



Dantza. Kukai. Gernika

Sariak. Giza Eskubideen X. Zinemaldia



Premio Amnistía Internacional. Isaki Lacuesta y Aitor Moreno



Iciar Bollaín. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria. Juan Karlos Izagirre alkatearekin



Ikusleen saria Film Luze Onenari. Give up tomorrow. Michael Collins eta Paco Larrañagarekin



Paul Urkijo. Gazteen Saria Film Labur Onenari



“Afrika Zabaldu” Erakusketa. Haurralde. Liburutegi Nagusia



Ikus ezin dena filmatzea. Taillera ” Isaki Lacuesta eta Amnesty International



10 urte karteletan . Erakusketa. Giza Eskubideen Zinemaldiaren Bulegoa



The gray Wall. Juan Azpirateren erakusketa. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala

BAKEAREN ETA GIZA
ESKUBIDEEN ALDEKO
IPUINAK ETA
MARGOLANAK



Victoria Eugenia Antzokiko Erakusketa Aretoan ikusgai egon ziren aurkeztutako lanak



Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Ipuinak eta Margolanen 8. Edizioa

2012ko apirilak 20tik 29ra

Giza Eskubideen aldeko sentsibilizazio ekimena.

6 eta 16 urte bitarteko 3.876 haur baino gehiagok parte hartu zuten.

33 ikastetxe, 4 haurtxoko, 4 arte akademia eta euskaltegi bateko haur eta gazteek bakeari eta giza eskubideei buruz zituzten ideiak adierazi eta jaso ziren 3.415 marrazki eta 461 ipuinetan.

“Bazen behin” argitalpenak edizio honetako lan onenak bildu zituen.

Antolakuntzak Santo Tomas Lizeoari eta Mihise Lantegiari beste konpentsazio bat eman zien ekimen honen oinarri diren balioen gaineko hausnarketa eta parte-hartzea bereziki sustatu duela eskertzeko.

Aurkeztutako lanak ikusgai egon ziren apirilaren 20tik 29ra, Victoria Eugenia Antzokiaren erakusketa aretoan.

OROIMEN EGUNAK

OROIMEN EGUNAK

2012ko otsailak 27

Saharako Arabiar Errepublikaren (SAED) 36. ospakizuna

Donostia eta Saharar herriaren arteko harremanak bi hamarkada baino gehiago ditu, eta testuinguru horretan ospatu zen SAEDen 36. urteurrena hitzaldi eta zine forum bat bezalako jardunaldiekin.

Ekitaldiak Donostiako Udaleko Lankidetzaren atalaren antolatu zituen, YALAH, SEADeko Lagunak eta Euskal Fundazioa elkarteekin batera.



Juan Karlos Izagirre alkatea, Jon Albizu, Mugikorasun zinegootzi ordezakaria, eta jardueren antolakuntzako kide batzuk saharar ikurrarekin udaletxeko balkoian jarri baino une batzu lehenago, otsailaren 27an, saharar herriarekiko elkartasuna adierazteko

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean izandako bideo foruma. Gdeim Izik kanpamentu sahararrari buruzko dokumentala proiektatu zen eta gero mahai eztabaida bat izan zen Mohamed Salem Bouamoud, Afapredesako (Saharako Preso eta Desagertuen Senideen Elkarte) kidearen partehartzearekin



OROIMEN EGUNAK

2012ko apirilak 8

Ijitu Herriaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna

Donostia eta Gipuzkoako ijito eta ijitoen aldeko elkarteek egun hau gogorarazi zuten bigarrenengo urtez jarduera ezberdinen bidez. Ikurrinen arteko trukea eta komunikatu baten irakurketa egin zuten. Beste jarduera batzuk ere burutu ziren, haur jolasak, tailerrak, diapositibak, erakusketa bat eta esku pilota partidu bat adibidez.

Jarduerak Mujeres con futuro, AGIFUGI, Fundación Secretariado Gitano, Kamelamos Adiquerar ijito elkarteak eta Donostiako Udalak Giza Eskubideen Atalaren bidez, Donostia Kultura eta Gipuzkoako Cáritasek antolatu zituzten.



Juan Karlos Izagirrek eta Naiara Sampedrok Donostiako eta Ijitu Herriaren ikurrinen trukea egin zuten, ijitu elkarteek komunikatu bat irakurri ondoren Udaletxean.



Haur batzuk Anoetan antolatu zuten tailerrean

OROIMEN EGUNAK

2012ko ekainak 28

Transexualen, Bisexualen, Lesbianen, Gayen eta Queeren askapen sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna

Hiriko zenbait elkartek, LGTB taldeen eskubideak babesteko lan egiten dutenek, informazio, sentsibilizazio eta aldarrikapen jarduerak antolatu zituzten maiatza eta ekainean zehar. Ekainaren 28an, 19:30etan Boulevardetik manifestazio batekin hasi, eta ekainaren 29an 23:30ean Gazteszenan (Egiako Kultur Zentroan) egindako jaiarekin burutu ziren ekintzak.

Donostiako Udalbatzak Adierazpen bat onartu zuen talde hauek egiten duten aldarrikapenarekin bat egiteko. Gehitu, Egham, Donostiako Bilgune Feminista. Garaipen, Medeak, AMPGYL, (Asociación de Madres y Padres de Gays, Lesbianas, Bisexuales y Transexuales, Errespetusz, Berdintasun Bulegoa (Donostiako Udala).

Laguntzaileak:

Berdintasun Saila, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea.
Giza Eskubideen Saila. Donostia Kultura.



Ekitaldia boulebardean

OROIMEN EGUNAK

2012ko azaroak 20

Haurren Egun Unibertsala

Aurten ere, beste behin, Haurren Egun Unibertsala eta Haurren Eskubideen Konbentzioaren onarpena ospatu zuen Donostiako Udalak hainbat erakunde eta elkarterekin.

Hurrei eta gazteei zuzendutako tailerrak, jolasak, pelikulak, ipuinak eta zenbait jarduera antolatu ziren.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak, Gazteria Arloak eta Donostia Kulturaren artean antolatu zituzten jarduerak, UNICEF eta Avaim laguntzarekin. Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak diruz lagundu zuten.



OROIMEN EGUNAK

2012ko azaroak 25

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela eta, Donostiako Udalak, kanpaina bat jarri zuen martxan gizartean oraindik ere oso errotuta dagoen arazo larri honen aurrean herritarrak kontzientziatzeko asmoarekin.

‘Eraso sexistarik gabeko hiri baten alde’ lelopean kanpaina honetan hainbat ekimen egin ziren, horietako asko emakume elkarte, talde feminista eta gobernuz kanpoko erakundeekin batera antolatutakoak.

Aldi berean, Donostiako Udalak erakunde adierazpen bat onartu eta dokumentu honen irakurketa publiko bat egin zuen Udaletxearen aurrean. Adierazpenean, Donostiako Udalak biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartu zuen.

Gainera, Usandizagako Publizitate Grafikoko Goi Mailako Heziketa Zikloko Ikasleek hamabi lelo egin zituzten, krisia ardatz hartuta eta krisiak emakumeei zuzenean eragin diela salatzen.



OROIMEN EGUNAK


2012ko azaroak 29

Palestina Herriareko Elkartasun Nazioarteko Eguna

Azaroaren 29an Palestina Herriko Elkartasun Nazioarteko Elkartasun Eguna ospatzen da. Hori kontuan hartuta, Sahar Vardik, israeldar intsumisioa eta palestinar erresistentziako mugimenduetan aktibistak “Refusenik, intsumisioaren prezio Israelen” hitzaldia eskaini zuen Koldo Mitxelena kultur unean, abenduaren 4an.

Sahar Vardi Jerusalemgo ekintzaile gaztea da. Kartzelan egon da derrigorrezko zerbitzu militarari uko egiteagatik. Palestinar erresistentzia laguntzen duten mugimendutan parte hartu du, eta israeldar gizartearen militarizazioaren eta palestinar lurraldeen okupazioaren kontra dihardu.

Antolatzaileak: Donostiako Udala (Lankidetzeta eta Giza Eskubideen arloak, Donostiaentremundos) eta Mundubat.



OROIMEN EGUNAK

2012ko abenduak 1

Hiesaren Munduko Eguna

Donostiako Udalak, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harri beltza elkarrekin batera, hainbat ekintza antolatu zituen abenduaren 1ean HIESaren Munduko Eguna dela eta.

Jardueren artean, besteak beste:

- Konzentrazioa Kalkutako Teresa Plazan.
- Kursaalaren iluminazioa.
- Begizta gorriak eta kartelak Udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan eta hainbat garraio publikotan.
- Donostiako Udalaren Erakunde Adierazpena.
- Informazio mahaiak.



OROIMEN EGUNAK

2012ko abenduak 10

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzorde Bereziak deituta, Juan Karlos Izagirre alkateak eta Udaleko ordezkari politiko guztiek giza eskubideen urraketen “biktima guztien oroimenezko” ekitaldi bateratua egin zuten abenduaren 2an, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira.

Udaletxearen aurrean kokatuta dagoen “Oroimena” izeneko monolitoaren inguruan lore-
eskaintza eta minutu bateko isilunea egin zuten.

Agintaldi honetan Donostiako Udaleko talde politiko guztiek biktima guztien aldeko ekimen bateratu bat egin zuten lehenengo aldia izan zen.

Donostiako Udalbatzak Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren buruzko erakunde adierazpen bat onartu zuen.



Monolito aurrean ekitaldia

HITZALDIAK

HITZALDIAK

2012ko otsailak 15

“Pobrezia, giza bazterketa eta hezkuntza eskubidea” hitzaldia

Alejandro Tianak, Urrutiko Hezkuntzaren Unibertsitate Nazionaleko (UNED) Hezkuntzaren Teoria eta Historian Katedraduna, eskaini zuen mintzaldia, Luis M^a Naya, UPV-EHU-ko irakaslearen laguntzarekin.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean izandako hitzaldia, hezkuntza eskubidearen inguruko “Beste Mundu Batzuetako Eskolak” erakusketaren barne antolatutako ekintza osagarrietako bat izan zen.

Jarduera Donostiako Udalak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak eta UPV-EHU-k antolatu zuten, Donostia Kultura eta Garaian taldearen laguntzarekin.



Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean izandako Tiana-ren hitzaldiaren bi une.

TOPAKETAK

2012ko martxoak 13

Federico Mayor Zaragozari harrera Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean


Unesco-ko zuzendari ohiak eta Bake Kulturaren aldeko Fundazioaren lehendakariak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean jaso zuten harrera, Kultur Etxean eman zuten hitzaldiaren aurretik.

Eskainitako solasaldia “Elkarbizitza eredu berri baterako pedagogia” jardunaldien barruan kokatu zen, Ikastolen Elkarteak antolatuta.

Mayor Zaragozak ongiatorria jaso zuen besteak beste, Juan Karlos Izagirre alkatea, Mikel Mancisidor, Unesco Etxea-ko zuzendaria eta Martin Garitanok, Gipuzkoako diputatu orokorraren eskutik.



Federico Mayor Zaragozari egindako harrera Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean



BAKE PROZESUA HEMEN

ARGITALPENAK

2012ko apirilak 25

Aiteko Nazioarteko Konferentziari buruzko argitalpenaren aurkezpena

Paul Ríosek, Lokarriko koordinatzaileak, Aieteko Nazioarteko Konferentziari buruzko liburuxka aurkeztu zuen, Sare honetako beste bi kideekin batera.

Orain dela sei hilabete Aieten ospatu zeneko Nazioarteko Adierazpenari buruzko liburu hau gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez kaleratu da. Donostiako Udaleko laguntzarekin argitaratu da liburuxka.

Lan honen aurkezpena herritarren artean Aieteko Adierazpenarekiko sostengua lortzeko eta "herritarren sostengua bultzatzeko bake prozesuan" Lokarrik martxan jarri duen kanpainaren barruan kokatzen da.

Liburuaren aurkezpenaren ondoren, "Sei hilabete Aiete geroztik" izeneko mahai ingurua ospatu zen, Paul Ríos-ek, Luis Azpiolea (El País), Iñaki Iriondo (Gara) eta Pablo Muñoz (Noticias de Gipuzkoa) kazetariak parte hartzearekin batera. Egungo egoera politikoari buruzko solasaldi hau Txaro Arteaga-k moderatu zuen.



TOPAKETAK

2012ko uztailak 5

Arraunean Konponbidean. Gernika eta Donostia arraunean elkartu

Gipuzkoako diputatu nagusiak, Martín Garitanok, eta Donostiako alkateak, Juan Karlos Izagirrek, "Arraunean Konponbidean" Euskal Herriko bake prozesuaren aldeko ekimenari ongietorria eman zioten Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Euskal Herriko eta Irlandako herritarrek osatutako tripulazioa bi trainerutan abiatu zen uztailaren 3an Gernikatik, bi egun geroago Donostiako portura heltzeko. Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean egin zen ekitaldia eta bakea aldarrikatzea eta Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzea da honen helburua.

Antolatzaileak: Causeway Coast Maritime Heritage Group (Ipara Irlanda) Albaola Itsas Kultur Elkartea: (Euskal Herria).



Harrera

BILERAK

2012ko azaroak 20

Ordezkarri politiko, sindikal eta sozialekiko Jonathan Powell-en bilera

Tony Blair-en Kabinetearen nagusi ohia, Jonathan Powell, ordezkari politiko, sindikal eta eragile sozialekin bildu zen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, Euskal Herrian Gatazkaren konponbidea sustatzeko Nazioarteko Konferentziaren urte bete geroztik.

Lokarrik topaketa hau antolatu zuen 2011ko urriaren 17ko urriaren Nazioarteko Konferentzia bezala.



*Jonathan Powell, Juan Karlos Izagirre(Donostiako alkatea)
eta eta Paul Rios (Lokarriko koordinatzailea)*

OMENALDIA

2012ko abenduak 9


Gatazkaren biktima guztiei omenaldia

Gatazkaren ondorioz giza eskubideen urraketan biktima izan ziren pertsona guztiek aitortza eta omenaldia jaso zuten Donostiako Udal Gobernuaren eta Juan Karlos Izagirre alkatearen eskutik kaian antolatutako ekitaldi baten bitartez.

Udal Txistulari bandak lagunduta, Udal Gobernuako kideek lore bana bota zuten itsasora, eta isilunea egin zuten.



Donostiako Udal Gobernu municipalaren ekitaldia kaian



BAKE PROZESUAK MUNDUAN

HITZALDIAK



Juan Karlos Izagirre, Carlos Villán Durán eta Paul Ríos, Aieten eskeinitako hitaldian

2012ko apirilak 12

“Bakerako Giza Eskubidea, pertsonen eta herrien eskubidea” hitzaldia

Carlos Villan Duaranek, AEDIDHeko Nazioarteko Giza Eskubidearen aldeko Espainiako Elkartearen lehendakariak, eskaini zuen mintzaldia. Paul Riosek, Lokarriko koordinatzaileak, aurkeztu zuen hitzaldia non Juan Karlos Izagirre alkatea ere egon zen.

Villan Duranek *Pertsonen eta Herrientzako Bakerako eskubideari buruz Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunaren barne*, hitz egin zuen.

Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean izandako ekintza hau Donostiako Udalak antolatu zuen.

ERAKUSKETAK



Prensaurrekoan, Naiara Sampedro, Donostiako Udaleko Berdintasuna, Migrazio eta Gazteriako zinegotzi ordezkaria; Luis M^a Naya, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien UPV-EHUko Faktateko irakaslea (esk.) eta erakusketaren komisarioa Carlos Ernesto García (ezk.). Azken hau bisita gidatua eskeini zien bertaratutakoei.

2012ko urtarrilaren 27tik apirilaren 29ra

”Beste Mundu Batzuetako Eskolak” erakusketa

Zuri beltzeko 50 argazki dira, Kim Manresa argazki-kazetari ezagunak egindakoak hezkuntza eskubidearen inguruan.

Irudiak, Manresak bost kontinenteetan zehar hainbat bidaien ostean egindakoak dira.

Erakusketa Donostiako Udalak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez, eta UPV-EHU-k antolatu zuten, Donostia Kultura eta Garaian Taldearen laguntzarekin.



Komisarioak eskeini zuen bisita gidatua prentsaurrekoaren ondoren.



Erakusketaren inaugurazioaren eguna.

ERAKUSKETAK

2012ko urtarrilaren 27tik apirilaren 29ra

“Beste munduetako eskolak”

Bisita Gidatuak



500 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak antolatutako bisitan gidatuetan



ERAKUSKETAK

Bisita

2012ko otsailak 8 eta 9

Luis M^a Naya irakaslearen klasea UPV-EHUko ikasleriari eta “Beste Mundu Batzuetako eskolak” erakusketara bisita

Luis M^a Naya, UPV-EHUko irakaslea, “Hezkuntza Legegintza eta Nazioarteko Perspektiba” irakasgaiko klase bat irakatsi zien Pedagogia eta Gizarte Heziketako Lehen Mailako ikasleei, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Hezkuntza eskubidearen inguruan jasotako klasearen ondoren, ikasleriak Kim Mannresaren “Beste Mundu Batzuetako Eskolak” erakusketa bisitatu zuen Nayak gidatuta.

Naya bi egunetan eskaini zuen klasea; otsailak 8an gaztelaniazko ikasleei zuzenduta eta otsailaren 9an euskarazkoei.



Pedagogia eta Gizarte Heziketako bi ikasle taldeak, Naya-rekin klasea eman zutenak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko Gandhi Aretoan.

ERAKUSKETAK

2012ko martxoaren 22tik maiatzaren 5era

“Desagertuak” erakusketa. Gervasio Sánchez, Okendo Kultur Etxea

Gervasio Sanchez argazkilari ospetsuaren argazki-dokumentaleko proiektu zabala da “Desagertuak” gatazka egoeretan ematen diren indarrezko desagertuen gaian zentratzen da.

Argazkiak gatazka armatuetan espezializatuta dagoen argazkilari honek egindakoak dira Latinoamerikako, Asia eta Europako hamar herrialdetan, 1998 eta 2010 bitartean.

Erakusketaren antolatzaileak ondoko hauek izan dira: Donostiako Udaleko Lankidetzeta eta Giza Eskubideetako Aralak, Giza eskubideen Zinemaldia. Laguntzaileak: Donostia Kultura, DSS2016EU, Usandizaga Institutua, Castilla eta Leon Turismo Kontseilaritza, Caja Madrid, CCCB eta Musac.





“Beste mundu batzuetako eskola”. Aiete Kultur Etxea.



“Gernikako bonbardaketa. 1937ko apirilaren 26a”. Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean



Erakusketa “El espíritu de las olas” eta beste erreportaje batzuk. FNAC



“Desagertuak” erakusketa. Gervasio Sánchez. Okendo Kultur Etxea

HITZALDIAK

2012ko martxoak 14

“Hezkuntza eskubidea nazioarteko ikuspegitik” hitzaldia

Luis M^a Nayak eskaini zuen hitzaldia, UPV-EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntza Historia eta Teoria Atarian irakasle titularra eta doktorea.

Nazioarteko ikuspegitik begiratutako Hezkuntza eskubideari buruzko hitzaldia Kim Manresaren hezkuntza eskubidearen inguruko "Beste Mundu Batzuetako Eskolak" erakusketaren barruko ekintza osagarrietako bat izan zen.

Jarduera Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak eta EHU-UPV-k antolatu zuten, Donostia Kultura eta Garaian Taldearen lankidetzarekin.



Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean Naya-k eskeinitako hitzaldia

PROIEKZIOAK

2012ko martxoak 1

Alberto Arce-ren “Misrata, vencer o morir” dokumentalaren proiektzioa eta “Misrata Calling” liburuaren aurkezpena

Alberto Arce, freelance eta gatazketako kazetari bezala saritua izan denak, Antzoki Zaharrean aurkeztu zituen Libian egindako bere bi lan hauek. Ondoren, eztabaida bat egin zen erreportajea eta liburuaren gaiaren inguruan.

Arabiar Udaberriren Urteko Zikloko jardueren lehenengo ekintza izan zen hau, Donostia Udaleko Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Atalek antolatutakoa eta Giza Eskubideen Zinemaldiaren lankidetzarekin lehendabiziko ekintza honetan.



Antzoki Zaharrean izandako jarduera Alberto Arce-rekin

PROIEKZIOAK

2012ko martxoak 7

Mendebaldeko Sahararen gatazkari buruzko bideo foruma


“Gdeim Izik: Detonante de la Primavera Árabe” dokumentala proiektatu zen Gdeim Izik kanpamentuko saharar errefuxiatuen egoera zailari buruz. Mohamed Salem Bouamoud, Afapredesako (Saharako Preso eta Desagertuen Senideen Elkartea) kideak ondoren burutu zen mahai eztabaidan parte hartu zuen.

Jarduera hau Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) 36. urteurrenaren, otsailak 27, ospakizun ekintzen barnean kokatu zen.

Donostiako Udaleko Lankidetzat atalak, YALAH, SEADeko Lagunak elkarteek eta Euskal Fondoak antolatu zuten ekintza hau.



Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean antolatutako bideo foruma



OROIMEN HISTORIKOA

OROIMEN HISTORIKOA

2012ko irailaren 4

San Telmo Museoa: “Fernando Sasiain alkate eraikina”

San Telmo Museoko eraikin berria “Fernando Sasiain alkate eraikina” izendatu zen, Donostiak izan zuen azken alkate errepublikanoaren omenez. Sasiain Donostiako alkatea zen San Telmo Museoa inauguratu zenean, 1932ko irailaren 4an hain zuzen, hori dela eta erabaki zuen Udalak eraikin honi bere izena ematea.

Donostiako alkateak, Juan Karlos Izagirrek, Sasianen izana daraman plaka estalgabetu zuen San Telmoko eraikin berrian, Arantxa Garayalde Brau, Josefina Garayalde Brau eta Elena Sasiain, Fernando Sasianen ilobekin eta bilobekin batera.

Arratsaldean, San Telmo Museoan, Rosa Ayerbe historialariak, Xabier Urmeneta psikologoak eta Iñaki Marquez psikiatrak hitzaldi bat eskaini zuten Fernando Sasiaini buruz.

Donostiako Orfeoia emanaldia eskaini zuen, duela 80 urte San Telmoren inaugurazioa egin zuen bezala.



Sasianaren senideak Juan Karlos izagirrek alkatearekin.

OROIMEN HISTORIKOA

2012ko urriak 10

Oroimen Historiaren Batzordea: lehen pausoak

Oroimen Historikoaren Batzordea sortzeko asmoz, oroimen historikoa lantzen duten hogei bat elkarte eta PNV-EAJko ordezkaria bat elkartu ziren, Bakearen Etxean.

Parte hartzaileek Batzordearen oinarriak aztertu zituzten, eta ekarpenak egiteko borondatea erakutsi zuten.

Oroimen Historikoaren Batzordea kontsultarako eta informaziorako gunea izango da. Bere eginkizuna besteak beste oroimenera ekartzea, 1936 geroztik izan diren Giza Eskubideen urraketak aitortzea, eta hauek berriro ez gertatzeko neurriak hartzea izango da.

Juan Karlos Izagirre, alkateak, Giza Eskubideen atalaren arduradun nagusi gisa aipatu moduan, Oroimen Historikoa herritar guztien ondarea da, eta instituzioek hura berreskuratzeko erantzukizuna dute.



OROIMEN HISTORIKOA

2012ko abenduak 12

Ondarretako kartzelan preso egondako pertsonen oroimenezko monolitoa

Donostiako alkatea den Juan Karlos Izagirrek Ondarretako kartzelan preso egondako pertsonen omenezko oroitarria zabaldu zuen, abenduaren 12an, Pilar Garciandia eta Marcelo Usabiaga preso ohiekin batera.

Kartzela egon zen tokian jarri zuen oroitarria Donostiako Udalak, Tenis klubaren eta hondartzara jaisteko maldaren ondoan.

Oroitarriaren oinarria kartzela izandakoaren harriez osatuta dago (Ondarretako hondartzatik berreskuratu zituen Aranzadi elkarteak), urte luzez ezkutatu nahi izan zuten espetxea ahanzturatik ateratzeko.

Gerra Zibilean eta frankismo garaian milaka lagun egon ziren han espetxeratuta eta horietatik ehunka fusilatu egin zituzten; oroitarriaren bidez, haiek guztiek justiziaren eta askatasunaren alde egindako borroka aitortu nahi du Udalak.



ERAKUSKETAK

2012ko apirilak 3tik maiatzak 3ra

“Gernikako bonbardaketa. 1937ko apirilaren 26a”

Gernikaren bonbardaketaren 75. urteurrena zela eta, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean testu historikoetaz lagundutako argazkien erakusketa hau egon zen ikusgai. Etengabe proiektatutako bonbardaketari buruzko bideo bat eskaini zen erakusketarekin batera.

Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak antolatu zuten, Gernikako Bakearen Museo Fundazioa eta Gernikako bonbardaketari buruzko Dokumentazio Zentroak ekoiztuta.

Giza Eskubideen X. Zinemaldiaren barneko jardueretako bat izan zen.



Gernikako bonbardaketari buruzko erakusketa, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean

ERAKUSKETAK

Irailaren 28tik abenduaren 12ra

Erakusketa: Ondarreta, gezalaren kartzela

Aiete Kultur Etxeko erakusketan, 39 argazki handi, mural bat, presoenak izandako 50 objektu baino gehiago eta Ondarretako kartzelako zati izandako harri bat daude (Aranzadi Zentzia Elkarteaj berreskuratu du). Gainera, presoen senideen lekukotzak eta espetxeko argazki batzuk jasotzen dituen bideo bat prestatu zen baita kartzelako historiaren berri ematen duen liburu bat ere, Iñaki Egaña idatzia.

Espetxea 1890ean ireki zen eta 1948an itxi zen. Frankismoaren garaian milaka preso politiko espetxeratuak izan ziren.

Antolatzaileak: Donostiako Udala, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bitartez, Aranzadi Zientzia elkarte, Donostia Kultura eta Donostia/San Sebastián 2016.

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa Gizarte Ekintza



“Ondarreta, gezalaren kartzela” erakusketaren kartela

ARGITALPENAK


2012ko urria

“Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian” liburua

Gernikako bonbardaketaren 75 urtemugaren arrazoiarekin egindako argitalpena. Joxean Fernandezek eta Santiago de Pablock, koordinatuta.

Nosferatu bildumaren 8. Liburua. Liburu honek memoria historikoaren berreskurapenaren konpromisoa jasotzen du. Zinemaren bitartez ere eman daitekeela, hizkuntza zinatografikoaren boterea erabiliz elementu bateratu bezala, ezagutzeko eta ezagutzera emateko nola kontatua izan den historia ikusmolde eta ikuspuntu desberdinetatik.

Argitalpena Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmmategiak elkarlanean argitaratu dute, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailaren laguntzarekin.



ARGITALPENAK


Ondarreta: Gezalaren kartzela. Argitalpena

Ondarretako kartzelaren historiaren inguruan Iñaki Egaña egindako ikerketaren argitalpena Donostiako Udalak enkarguz. Dokumentazio grafikoa Juantxo Egañarena da.

Liburuan Aranzadi Zientzia Elkartek eta Donostia Kulturak hartu dute parte.

Babesleak: Gipuzkoa Foru Aldundiak, Kutxa Gizarte Ekintza eta DSSEU2016.





BESTELAKO EKINTZAK

ELKARTEEI DIRU- LAGUNTZAK

DIRU-LAGUNTZAK

2012ko urria

Bakea, giza eskubideak eta aniztasunaren aldeko jardueretako dirulaguntzak

Bakearen, giza eskubideen, aniztasuna eta kultur artekotasunaren aldeko jardueretarako guztira 63.000 euroko dirulaguntza banatu zuen Donostiako Udalak.



TOPAKETAK,
BILERAK
ETA TAILERRAK

BILERAK

2012ko urtarrilak 17

“Kalitate demokratikoaren aldeko Elkarrizketak” ekitaldia

Joan Fusterek, Ernest Lluch Fundazioaren “Elkarrizketak” proiektuaren zuzendaria, 2011ean egindako lan honen ondorioak aurkeztu zituen.

Daniel Innerarity, gizarte eta politika Soziologiako katedraduna; Joaquín Arango eta Javier Elzo, biak Soziologiako Katedradunak, kalitate demokratikoari buruzko mahai eztabaida honetan parte hartu zuten. Juanjo Álvarez izan zen moderatzailea.

Ernest Lluch Fundazioak antolatu zuen jarduera hau Obra Social “la Caixa”ren laguntzarekin eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren lankidetzarekin, baita RBA Audiovisual, Bartzelonako Udala, Generalitat de Catalunya, Bartzelonako Diputazioa eta Donostiako Udala Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez.

Eskubitik ezkerrera, Innerarity, Elzo, Arango eta Álvarez



Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Exean ospatutako Ernest Lluch Fundazioaren ekitaldia



BILERAK

2012ko martxoak 9

Euskal Eurohiriaren Batzar Orokorra Pakearen eta Giza Eskubideen Etxean

Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren Garapenerako Mugaz Gaindiko Agentziako (EIET) ordezkariak bildu ziren Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Bilera honetan Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea, Martin Garitano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Jean Grenet, Baiona-ko alkatea eta Côte Basque-Adour aglomerazioko lehendakaria, egon ziren, besteak beste.

Mugaz gaindiko mugikortasun eta garapen iraunkorreko gaiak landu zituzten.



EIET-ko kideak Donostiako alkatearekin eta Gipuzkoako diputatu orokorrarekin, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, bilera amaitzean

TAILERRAK: IKASTAROA

2012ko otsailak 2, 3, 9 eta 10

“Garapen Hezkuntzarako Proiektuen Ebaluazioa” ikastaroa

Harkaitz Lopezek eta Irantzu Varelak eskaini zuten ikastaroa, UNA-Gestión y Comunicación-eko kideak, generoko berdintasun eta garapenerako lankidetzan espezializatutako aholkularitza, alegia.

Ikastaroaren helburua: jarraipen eta ebaluazioko prozesu estrukturalak egiteko behar diren ezagutza eta tresnak eman eta horrela, proiektuen kalitatea hobetu.

Hogei pertsonak jaso zuten ikastaroa eta liberatutako pertsonalari zein GKEtako boluntarioei zuzenduta egon zen, baita giza mugimenduetako kideei edo erakundeetako lankidetzat atarrietako teknikariei.

Jarduera, Donostia Udaleko Lankidetzat Atalak antolatu zuen, Gipuzkoa Diputazioko Lankidetzat Zuzendaritzarekin batera.



“Garapen Hezkuntzarako Proiektuen Ebaluazioa”-ri buruzko ikastaroa, lau egunetan irakatsi zena Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

TAILERRAK: IKASTAROA

2012ko martxoak 15

Cleveland-eko ikasleen Bioetikako Masterra Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean

Case Wesern Reserve Amerikako Unibertsitateko hamabost bat ikasleek ikastaro bat jaso zuten Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, Bioetikako Masterraren barne.

Ameriketako Unibertsitateak antolatzen dituen arte, zientzia, ingeniari, medikuntza, zuzenbide, enpresa eta giza gaiei buruzko programaren barruko ikastaroa izan zen.

Aieten izandako topaketa honen helburuetako bat ikasleak Donostia eta bere kulturari buruz informatzea izan zen.

Globernancek, Gobernantza demokratikoaren Institutuak, antolatutako topaketa izan zen.



Aieten antolatutako Ikastaroan izan ziren ikasleak

TAILERRAK: IKASTAROA

2012ko ekainak 21

Monterreyko ikasleen bisita “Etorkizuneko Hiriak” kurtsoan

Monterreyko Institutu Teknologikoko ikasleen bisita “Etorkizuneko Hiriak: planeamendu estrategikotik hiri gobernantzara” ikastaroaren baitan.

Antolatzaileak. Deustuko Unibertsitatea, Monterreyko Institutu Teknologikoko Administrazio Publikoan eta Politika Publikoetan Graduatuen Eskola (EGAP) eta Bilboko Metropoli 30 Elkartea. Babeslea. Globernance.



Monterreyko (Mexiko) ikasleak

BILERAK

2012ko urriak 18 eta 19

Europako Kulturarteko Hirien Sareetako goi mailako bilera

Mintegi honen helburu nagusia enpresei, batez ere enpresa txiki eta ertainei, kultur aniztasunaren onurak (“aniztasunaren abantaila”) ezagutaraztea izan zen, eta enpresa hauek animatzea kulturen arteko integrazioa lortzeko hiriekin egiten dituzten ahaleginak laguntzea.

Europa mailan, enpresa eta aniztasunaren arloan esanguratsuak diren pertsonen parte hartu zuten mintegian, esaterako: Irena Guidikova (Europako Kontseiluko Kultur Politiketako, Elkarrizketa eta Aniztasuneko Dibisioaren zuzendaria), Myrtha Casanova (Aniztasunaren Kudeaketarako Europar Institutuaren lehendakaria), Jon San Sebastian-ek (Talentua erakartzeko Zuzendaria, Tecnalia Research & Innovation) enpresa euskaldunak ordezkatu zituen.

Mintegi hau Bakeraren eta Giza Eskubideen laguntzarekin egin zen.



BILERAK

2012ko urriak 23 eta 24

Emakumeak, Teknologia eta Demokrazia gizarte aldaketarako” nazioarteko biltzarra

Lehenengo biltzarraren helburuak: demokrazia bultzatu, giza eskubideak defendatu, eta desberdintasunen kontrako borrokan tresna teknologiko berriak erabiltzen dituzten mundu osoko adituak urtero elkartu.

Aurten emakumeengan jarri zen arreta, beren gizarteetan gertatzen ari diren aldaketen sustatzaileak eta protagonistak baitira, informazio eta komunikazio teknologien erabilpenaren bitartez, bakearen, askatasunaren, berdintasunaren eta justiziaren alde duten konpromisoagatik.

Fundación Cultura de Paz eta Fundación Cibervoluntarios-ek antolatu zuten, Donostiako Udaleko laguntzarekin.

Besteak beste, Federico Mayor Zaragozak, Fundación Cultura de Paz-eko presidentek, edo Maria Teresa Fernandez de la Vegak, Fundación Mujeres de Africa-ko zuzendariak parte hartu zuten.



Besteak beste, Mayor Zaragoza, Juan Karlos Izagirre, Donostiako alkatearekin

CANTE FLAMENCO LEHIAKETA

2012ko abenduak 1

Cante Flamenco. XIII. Lehiaketa

Cante Flamenco-aren XIII. Lehiaketa Antzoki Zaharrean ospatu zen.

Kamelamos Adikerar Elkarteak antolatzen zuen, Donostiako Udalaren laguntzaz, Giza Eskubideen Sailaren eta Donostia Kulturaren bitartez.

Cante Flamenkoaren Lehiaketa urtero egiten da. Arte eta kultura flamenkoak donostiarrei hurbiltzea du helburu. Horrez gain, iaz bezala, 2011n hildako Moraito el Chico flamenko-kantaria omenduko da lehiaketan.

Ekitaldi honen hamahirugarren edizioan ondoko hamaika flamenko-kantariak parte hartu zuten. Lander Egaña del Amo “Maizenita” bilbotarrak irabazi zuen, 2. Victor Palacios, 3. Antonio Personat.



PROIEKZIOAK

PROIEKZIOAK

2012ko otsailak 29

“Buda explotó por vergüenza” zine-foruma

“Buda explotó por vergüenza” pelikula proiektatu zen, Hana Makhmalbaf-k zuzenduta eta gaztelaniazko azpiztituluekin. Ondoren, Garaian Taldeak dinamizatutako solasaldia egon zen.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean izandako zine-foruma *Kim Manresaren Hezkuntza Eskubidearen inguruko “Beste Mundu Batzuetako Eskolak”* erakusketaren ekintza osagarrietako bat izan zen.

Jarduera Donostiako Udalak Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen bidez eta UPV-EHU-k antolatu zuten, Donostia Kultura eta Garaian taldearen lankidetzarekin.



lizandako solasaldiaren une bat, pelikula ikusi ondoren

PROIEKZIOAK

2012ko martxoak 28

“Belenen alabak” eta “Binta eta ideia zoragarria” zine foruma

Hezkuntza Eskubideari buruzko bi pelikula hauek euskarazko azpigituluekin eskaini ziren, Aieteko Kultur Etxean.

Kim Manresa-ren “Beste Mundu batzuetako Eskolak” erakusketaren programazioaren osagarritzko ekintzetako bat izan zen. Gero, pelikulei buruzko mahai-eztabaida jarraitu zuen UNICEF-ek dinamizatuta.



“Binta eta
Ideia
zoragarria”
pelikularen
kartela



Pelikula ostean
izandako mahai
eztabada-ren une bat

KANPO JARDUERAK

KANPO JARDUERAK

2012ko martxoak 23

Ararteko-aren Gazteen Kontseiluaren Asanblada, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean

Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluak, 12 adingabeko DBH-ko ikasle talde batez osatuta, urtero egiten duen bileretako bat ospatu zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Bileran, Iñigo Lamarca Arartekoa egon zen.

Haurren eta gazteen eskubideei buruzko gaietaz aritu ziren, Arartekoari gero iritzi hauek helarazteko.



Arartekoaren Gazteak, Iñigo Lamarca Arartekoarekin eta Haur eta Nerabeen Kontseiluko arduradunekin, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean egin zuten bileraren ostean

KANPO JARDUERAK

2012ko apirilak 19

Lokarriren Aieteko Adierazpenarekiko sostengua eskatzeko kanpainaren aurkezpena eta liburuaren aurkezpena

Paul Riosek, Lokarriko koordinatzailea, Aieteko Adierazpenarekiko sostengua eskatzeko abian jarritako kanpaina ezagutzera eman zuen.

Ekimena Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko Gandhi Aretoan eskainitako prentsa aurreko baten bidez aurkeztu zen.

Kanpaina honen barruan egindako jardueren artean, Nazioarteko Konferentziari buruzko liburu baten aurkezpena egin zuten, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Ondoren, egungo egoera politikoari buruzko mahai eztabaida bat ospatu zen.

Apirilak 19
Aieten izandako prentsaurrekoa kanpaina aurkezteko



Apirilak 25.
Liburuaren aurkezpenaren ondorengo mahai ingurua. Parte hartu zuten: Paul Ríos, Luis Azpiolea (El País), Iñaki Iriondo (Gara) eta Pablo Muñoz (Noticias de Gipuzkoa). Txaro Arteaga-k moderatu zuen solasaldia



KANPO JARDUERAK

2012ko maiatzak 18

**Paul Riosen hitzaldia:
“Bakea eta elkarkizitza”**

Paul Rios, Lokarriko koordinatzaileak, “Bakea eta elkarkizitza” hitzaldia eskaini zuen, EAJ-PNVren Gipuzkoako Buru Batzarrak gonbidatuta.

Bakea, elkarkizitza eta bake prozesuari buruzko bere iritziak adierazi zituen



Paul Rios, Markel Olanok aurkeztuta

KANPO JARDUERAK

2012ko maiatza

**Fantasiatzko eta Beldurrezko
Zinemaren Astearen kartela
Bakearen eta Giza Eskubideen
Etxean**

Mario Vaquerizo eta Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea dira aurten Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen kartelaren protagonistak.

Banpiro moderno bat bihurtuta, Vaquerizok Aiete Jauregiko ispilu baten aurrean posatu zuen, datorren urteko Beldurrezko Zinemaren Asteko irudia delarik



Mario Vaquerizo Aiete Jauregiko ispilu baten aurrean.

KANPO JARDUERAK

2012ko maitzak 25

SOS Bebés robados-en komunikatua

Euskadiko SOS Bebés Robados elkarteak prentsaurreko bat eskaini zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean. Komunikatu baten bitartez beraien kezkak, salaketak eta eskaerak azaldu zituzten.

Elkarte honen hainbat bilera Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak ospatu dira.



Sos Bebés robados-en kideak prentsaurrekoan

KANPO JARDUERAK

2012ko maiatzak 25

Armeniako Genozidioa. Hitzaldia

Armeniako Genozidioaren 79. urteurrena zela eta, Nicolás de Miguel historialariak gai honi buruzko hitzaldia eskaini zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko Gandhi Aretoan. 1915 eta 1923 bitartean milioi bat armeniar baino gehiago hil ziren.



Nicolás de Miguel eta Armeniako Genozidioaren kideak

KANPO JARDUERAK

2012ko ekainak 16

Bakea eta Solidaritatea Fundazioa

Bakea eta Solidaritatea Fundazioak globalizazioak, emakumeak eta garapenak nolako eragin zuzena duten gure berezko egunerokoan hausnartzeko jardunaldi bat egin zuen.



Bakea eta Solidaritatearen Bilera

KANPO JARDUERAK

2012ko ekaina

**“Gernika bajo las bombas”:
telesailaren filmazioa
Bakearen eta Giza
Eskubideen Etxean**

“Gernika bajo las bombas”
telesailaren zenbait eszena
Bakearen eta Giza Eskubideen
Etxean grabatu ziren. Filma Luis
Mariasek zuzendu zuen.
Donostiako Zinemaldian
estreinatu zen.



Aktoreak Aieteko Parjean

KANPO JARDUERAK

2012ko ekainak 27

Torturari buruzko hitzaldia. Mauro Palma

Mauro Palma, Europar Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Komitearen (CPT) lehendakari izandakoak, Espainiar Estatuan, eta zehazki Euskal Herri mailan torturaren gaiari buruzko bere iritzia azaldu zuen.

Antolatzailea: Torturaren Prebentzio eta Salaketarako koordinakundea.



Mauro Palma

KANPO JARDUERAK

2012ko uztailak 14

“Colombia, la paz es asunto de tod@s”, Bakearen Etxean hitzaldia

Topaketa honek Kolonbiako eta Euskal Herriko ahots desberdinak espazio batean bateratzea helburu zuen. Era berean, gizarte zibilaren papera gatazkak gainditzeko aztertu zuen.

Operación masacre, memoria, dignidad y resistencia” dokumentala proiektatu zen. Felipe Canterak (zuzendaria) solasaldian parte hartu zuen. Paul Rios, Lokarriko koordinatzailea, Euskal Herriko egoerari buruz aritu zen.

Emigrados sin fronteras, Cine de Base, eta EHU/UPV-k antolatua, Lokarriren laguntzarekin



KANPO JARDUERAK

2012ko abuztuak 3

**Musika Hamabostaldia:
Bakearen eta Giza Eskubideen
Etxean konzertua**

Donostiako Musika Hamabostaldiaren inaugurazio egunean kontzertu bat eskaini zen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Ana Schwedhelm sopranoak Elías Benito sopranoak, Pau Casan pianistarekin batera, Liszt, Duparc, Montsalvatge, Donizettiren piezak eskaini zituzten.



KANPO JARDUERAK

2012ko urria

“Tres-60” pelikularen filmazioa Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean

Aiete Jauregia luxuzko hoteleko "suite" batean bihurtu zen, aldi baterako, Tres 60, Alex Ezkurdia filmatzen ari den pelikularako. Raúl Mérida ('Tierra de Lobos', 'Los Protegidos'), Sara Sálamo ('Arrayán', 'Toledo'), eta Geraldine Chaplin-ekin.



KANPO JARDUERAK

2012ko azaroak 21

Etixerat: prentsaurrekoa

Etxeratek, Euskal Preso eta Iheslari politikoen senide eta lagunek, prentsaurreko bat eskaini zuten Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, “Izaro Agirrek jasandako jazarpena” salatzeko. Aldi berean, *“presoen eta beren senideen aurkako erasoak eta jazarpenak amaitzea”* exijitu zuten.

